

**IKASTURTEAREN HASIERA (I)**

Kaixo lagunok:

Berandu bada ere berriro zuekin gatzazkizue Nafarroako Irakaskuntza publikoaren inguruan gertatzen denaren berri ematen.

Aurtengo ikasturtea, ohi den bezala, arazo zenbaitekin hasi gara. Hauexek dira horietako zenbait:

1. Indarrean dagoen "PAKTOAN" ZEHAZTEN DIREN BALDINTZAK EZ DIRA BETE:
 - a. Bikoizketak 26 ikasleekin.
 - b. Behar espezifikoaren figuraren zehaztapenak.
 - c. Departamentua -Sindikatuaren arteko akordio eza.

2. ATLANTE PROIEKTUA: Nafarroako Gobernuak argi utzi du indarrean dagoela, nahiz eta epaia bat egon horren aurka. Honen inguruan Sindikatu guztiek, aho batez, eskatu dute Proiektua bertan bera uztea eta Sindikatuekin adostutako ebaluazio bat burutzea. Gure aldetik ikastetxeetan PLANTOA egiteko aukera lantzen ari gara.

3. ERROTXAPEA auzoan egon den ikaspostuen faltaren aurrean, Sindikatu guztiek, aho batez, eskatu dute:
 - a. Errotxapean 4. lerroa irekitzea.
 - b. Zabalpen urbanistikoa diren Errotxapea bezalako auzoetan eta herrietan ikaspostuen planifikazio erreala egitea, egun Errotxapean gertatzen ari den egoera berriro gerta ez dadin inon ezta inoiz ere ez.

4. KALITATERAKO HITZARMENA: Ekainean egin ziren azken bilerak Administrazioarekin. Maiatzerako konbokatua zegoen greba bertan behera gelditu zen, Sindikatu batzuen iritziz negoziatioetan aurrerapausoak emateko baldintzak zeudelakoan. Irailean gaiarekin jarraitzeko eta aurrerapausoak ez ematekotan, mobilizazioak konbokatzeak akordioa hartu zuten Sindikatuek. Gaur egun geldirik dago dena, eta ez du ematen Departamentuak negoziatzeko asmorik duenik. Gaiari heldu beharra dago. Asko dira kalitatezko hezkuntza izateko hobetu beharreko arloak: Langileen lan-baldintzak, ratioak, ordutegiak, bikoizketak, ...

5. OPOSAKETAK: Aurten Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza konbokatuko dira. Hori baino ez dakigu. LOEn zehazten arabera sarbide sistema aldatu egingo da (froga bakar bat eta antzinasunari garrantzi handiagoa) Antza denez LOE garatuko duen Dekretua argitaratzear dago, honen ondoren Autonomiek egokitu beharko dute eta guk datu zehatzagoak izanen ditugu.

6. IKAS POSTUEN PLANIFIKAZIORIK EZA, D EREDUKO ZENTROETAN GEHIEN BAT (Iruñeko Errotxapea auzoa adibide daukagu).

7. ERAIKUNTZA ASKOREN EGOERA RUINOSOA.

<http://www.labsindikatu.org/sectoreak/irakaskuntza/publika>